
Si con Juan Ignacio Pérez Iglesias, se inició un proyecto de divulgación científica en Ondarroa. Que menos que empezar con un Científico de Ondarroa y miembro de la Asociación

Iker Badiola

Doktorea, EHU/UPVko Biologia zelularra eta Histologia irakaslea.




Komentarioa

Ez dut uste Iker Badiolak bere burua kontalaritzat hartuko duenik baina **KANTZERRA OSATZEN?** izenarekin emandako hitzaldian esandako guztiak besteko garrantzia izan zuen esateko moduak. Ondo baino hobeto ondutako emanaldian argi igorritako mezua zetaz bildutako opari bihurtu zen entzuleentzat.

Entzun izan dut inoiz zerbait konplexua zeure amamari ulertarazteko gai ez zaren bitartean ez duzula benetan menperatzen. Esango nuke Iker aititarekin ere proba egindakoa dela.

Bere lanarekiko maitasun edo liluratik egindako aurkezpena izan zen astelehenekoa. Egundoko ahalegina egin zuen kantzerra zer den eta bere taldeko ikerkuntza proiektuaren nondik-norakoak modu errazean azaltzen.



Ordu beteko iraupena izan zuen emanaldian historian zehar kantzerraren ezagutzan izan diren aurrerapausoez gain, gaur egungo taldeen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuen.

Eskertzekoa da mundu akademikotik aparte bizi garenok kantzerraren konplexutasuna dela eta tratamenduan aurrera egiteko diren zailtasunen berri izan dezagun.

Ondarroako euskara txukunean jarduteak adeitasuna ez-ezik aberastasuna ere gehitu zion azalpenari.

To be continued ... pozgarria egin zitzaidan, gaiaren inguruan sakontzeko gogo handiz atera nintzen bertatik eta.